

Karlos Gorriñdo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA

Amaiur

Lau hankako mahaia egiteko, arotz eta ebanista iaioak behar izan ditugureak. Ezinbestekoa izan da zoritxarrez, bestalde, txirlora eta ezpallak bazterrean geratzea, hanka sendo eta leunak lortzekotan. Amaiurren baitan eratutako asmoa indar metaketarena da, eta hau ezinbestekoa da ezer lortuko bada. Eta lortu nahi duguna ez da huskeria: Euskal Herri subiranoa eta euskalduna, besteak beste. Baina horretarako indar abertzale hegemonikoa izan behar dugu. Esan nahi baita, hegemonia ez dela soilik boto kopuru ikaragarria lortuz irabazten den zer baita, baizik eta politika egiteko era, etika eta moral eraberritua zabaldu behar dela politikarien artean. Ezarritako sistema aldatzeko gai ez izanagatik ere, ikus dadila politika egiteko modu desberdina eta sistema birmoldatzeko gai garela. Ulertuko ez litzatekeena, bestalde, hauxe da: sistemak irenstea eta gure asmoak hutsaren hurrengo uztea, jakin ez dugulako zirrikitu egokiak bilatzen gure helburuak lortzeko.



INIGO AZKONA

«
Ulertuko ez litzatekeena hauxe
da: sistemak irenstea eta gure
asmoak hutsaren hurrengo
uztea, jakin ez dugulako
zirrikitu egokiak bilatzen
gure helburuak lortzeko
»

niako hauteskundeetan parte-hartzea. Auto-determinazio eskubidea Espainiako Konstituzioan txertatzea Konstituzioaren kontrakoa da. Hortaz, eta, batik bat, ikusirik Espainiak ez digula gurea dena zertan eman, zer egiten dugu Madrilera begira, beste behin ere Euskal Herria Espainia dela espainiarrek erabiliko duten argudio historikoa berresteko ez bada? Atal ekonomikoari

dagokionarengatik baino ez nuke ulertuko gureak ez diren hauteskundeetan parte-hartzea. Diputatuak edo senatarriak izateak ematen duenarengatik, hain zuzen ere. Gure joko zelaia Euskal Herria da eta bertoko instituzioak: Eusko Jaurilaritza eta Nafarroako Parlamentua, aldundiak eta udaletxeak, eta iparraldeko instituzioak. Erakunde hauek erabili behar ditugu gure aldarrikapenak egiteko. Instituzio hauetan gehiengoa izanda baino ezingo diogulako Estatuari aurre egin, gure joko zelaian guk jarritako joko arauak ezarrita. Indarrak batu egin behar dira horretarako eta, jakina, ETak ez du

lekurik ibilbide honetan (Gernikako Akordioaren lehen puntua). Demokrazia parte-hartzaile benetakoa erabili ahal izango dugu, instituzionala, erakutsiz badela modurik guk nahi dugun Euskal Herria eraikitzen hasteko. ■



TXANDAN

Joxerra Garzia



Ezkerra eta eskuina bereizgaitzak begitantzen zitzaizkidan duela pare bat urte arte; ez akaso axaleko ezau-garrietan (ukitu eta estilo zeretan), baina bai funtsezko kontuei (giza eta gizarte eredu eta balioei) dagokienez.

Handik hona, berriz, bereizgaitz zirenak bereizezin bihurtu ditu ipar-mendebalde aberatsa aztoratuta daukan (gauzkan) krisiak.

Esku biek bat egite hori logikoa ez ezik zentzuzkoa ere izan zitekeen, egoeraren larria kontuan hartuta (larritasuna, hala ere, erlatiboa da beti, nora

Esku biak bat

begiratzen eta zerekin alderatzen den).

Bat egin, eskuinean egin dute bat esku biek, ezkerrean bat egiteko aukerari muzin eginik, antza, krisiaren lehen

sintomak agertu zirenean, diru eta gainerako putetxeen aurka esan zirenak gorabehera.

Berdin dio gobernua noren esku dagoen, eskuinaren dotrina ezartzen dute denek, *ezinbestean* (bestetik ezin delakoan edo). Hori bai: ezkertiar ustekoek *nabitaex* hartu beharreko neurriak jakinaraztean malko zuria isurtzen dituzte ezker-eskuin, eskuin esker onez. ■

